



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



San Pedro Zaindaren Jaietan kanpoko taberna-barrak ipintzeko ESKABIDEA

DOKUMENTUAK AURKEZTEA

- Udaleko Erregistroan (udaletxeko beheko solairuan) aurkeztu beharreko agiriak:

-Eskaera, eske-orri normalizatuan, datu hauek adieraziz: establezimenduaren izena, titularraren edo ordezkariaren izena, DNIA, helbidea eta kontaktuko telefonoa, bai eta posta elektronikoaren erreferentzia ere, halakorik baldin badauka.

- Krokis edo marrazki kotaduna (neurriekin), gutxienez datu hauek adieraziko dituen: barraren kanpoaldeko aurpegitik fatxadarainoko distantzia, barraren luzera, establezimenduko sarreraren kokapena eta barraren aurreko distantzia edo pasabide libre.

- Erregistroan sartzeko azken eguna: ekainaren 8a.
- Ekainaren 22a baino lehen barra ipintzeko lizentzia emango da.
- Ekainaren 27an ikuskatzeko bisitaldia egingo du Udaleko teknikariak, egiaztatzeko ea instalazioa bat datorren egindako eskaerarekin eta ea betetzen dituen aldeez aurretik eskatutako baldintzekin.
- Behin aurreko urrats hori betetakoan lizentzia indarrean egongo da.

BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK

- Barra ez da inoiz lokalaren fatxada baino luzeagoa izango.
- Barrak gehienez 1,50m-ko sakonera izango du, barraren kanpoko aldearen eta lokalaren fatxadaren artean neurtua, salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- Lokalaren sarrerak eta larrialdietarako irteerak libre utzi beharko dira.
- Barraren aurrean pasabidea utziko da (espaloia, mahiak,...), gutxienez 2,20 metrokoa.
- Barrak instalatu beharko dira ekainaren 27a, eta ezingo dira erabili ekainaren 28ra arte.
- Ezingo dira elikagaiak prestatu ezta barra gainean erakusgai jarri ere; lokal barrutik zerbitzatu beharko dira.
- Ez dute izango ez ur-hartunerik ez saneamendurik.
- Guztiz debekatua dago bozgorailuak edota bestelako soinu-tresnak erabiltzea, gaueko 24:00etatik biharamunek 11:00ak bitartean. Baldintza horiek bete ezean, soinu-instalakuntza erabiltzea debekatuko zaio, eta agindurik beteko ez balu, barra desmuntatu beharko du.

- Argindar instalazioak behe tentsioan baimendutako instalatzaile batek egin behar ditu.
- Argindarra hartzean Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoan adierazitako tentsioak bete beharko dira.
- Lur-hartuneak gehienez 10 ohmiokoak izango dira, eta egoera onean egon beharko dute.
- Argindar instalazioa daramaten metalezko egitura guztiek (barra, etab.) lur-hartuneak izan beharko dituzte.
- Argindar instalazioak airetik, BTEE-aren arabera babestuak eta lotunerik gabe egingo dira.
- Argindar instalazioek babestuta egon beharko dute beren babes-kaxarekin.
- Sustatzaileak izendatutako baimendutako instalatzaile elektrikaria, kanpoko barra jarrita dagoen bitartean eskura egon beharko du, eta haren ardurapean egongo dira egindako argindar instalazioen mantentzea.
- Barrak erantzun zibileko aseguruia izan beharko du, kanpoko barraren estaldura hartzen duena.
- Kontzesio epea honakoa izango da: ekainaren 28ko 12:00etatik uztaillaren 1tik, larunbata, 2ra, igandea, bitarteko goizaldeko arte. Barrak ostalaritzako jardueren ohiko ordutegiaren arabera itxi beharko dira (abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua eta ondorengo modifikazioak, uztaillaren 28ko 210/1998 Dekretua eta martxoaren 13ko 36/2012 Dekretua).
- Behin epe hori amaituta eta uztaillaren 2an zehar, interesatuak kendu egin beharko du kanpoko barra. Horrela egin ezean, Lasarte-Oriako Udalak egingo du haren kargura.
- Kanpoko barra ixteko ordutegia, taberna ixteko baimendutakoaren berdina izango da.

Informazio gehiago: 943 376 179 (Enplegu Dinamizatzailea)

Lasarte-Orian, 2018ko maiatzaren 23an

Jarduneko alkatea



Lourdes Acevedo Beldarrain